


Denbora unitateak

Denbora-unitateek gertaera baten iraupena neurtzen dute. Denbora-unitate nagusiak eskala honetan ikus ditzakegu:



Eskalan ikusten dugunez, unitate batetik beste batera pasatzeko, biderkatu edo zatitu behar da baina unitatearen arabera erabili behar dugun zenbakia aldatzen da; horregatik diogu denbora-unitate sistema ez dela sistema metriko hamartarra.

Ikus dezakegunez, ezagutzen ditugun unitate batzuk ez dira eskalan agertzen, adibidez:

- Bosturtekoa (5 urte), laurtekoa (4 urte) eta hirurtekoa (3 urte).
- Seihilabetekoa (6 hilabete), lauhilabetekoa (4 hilabete) eta hiruhilabetekoa (3 hilabete).
- Astea (7 egun), nahiz eta oso sarritan erabili, ez da agertzen bere lekuan, hilabetearen ondoren, hilabete batek ez duelako aste kopuru zehatzik eta zaila izango litzatekeelako ariketetan erabiltzea.

MILURTEKO batek 1000 urte ditu. Orain **HIRUGARREN MILURTEKOAN** gaude.

MENDE batek 100 urte ditu. Mendeak zenbaki erromatarrekin eta ordinal moduan irudikatzen dira. Urte bat zein mendetako den kalkulatzeko, bi kasu ditugu:

- Urtea 00tan amaitzen bada: mendea lehenengo zifrek adierazten dutena izango da
- Urtea 00tan amaitzen ez bada: mendea lehenengo zifrek adierazten dutena + 1 izango da.

Adibidez:

Urtea	Mendea
90	I.
100	I.
278	III.
400	IV.
689	VII.

Urtea	Mendea
760	VIII.
1000	X.
1290	XIII.
1560	XVI.
1875	XIX.

Urtea	Mendea
1900	XIX.
1976	XX.
2000	XX.
2010	XXI.
2100	XXI.

HAMARKADEK 10 urte dituzte. Mende batean 10 hamarkada daude. Adibidez, Bartzelonako Olinpiar Jokoak 1992an ospatu ziren, XX. mendeko 90eko hamarkada zena.

URTE bat gure Lur planetak Eguzkiaren inguruan bira bat emateko behar duen denbora da (translazio mugimendua). Urte bat **365 egun eta 6 orduren** baliokidea da. 6 ordu horiek pilatu egiten dira eta, lau urtean behin, egun gehigarri bat egiten da, otsailean jartzen dena, eta urte horri **BISURTEA** esaten zaio.

Urte bat bisurtea den ala ez jakiteko, **urteko zenbakia zati 4 egitean**, emaitza zehatza bada, urte hori **bisurtea da**. Bitxikeria bat: Olinpiar Jokoak, normalean, bisurteetan ospatzen dira.

Urtea		Bisurtea izan zen?
1836	$1836 : 4 = 459$ eta hondarra 0	Bai
1974	$1974 : 4 = 493$ eta hondarra 2	Ez

HILABETE bat 30 edo 31 egunkoa izan daiteke, eta **otsaila normalean 28 egunekoa izaten da baina bisurtea denean 29 egunekoa da**. Hala ere, eskalak adierazten du hilabete bat 30 egunen baliokidea dela; izan ere, ez bada esaten zehazki zein hilabete den, **beti 30 egunekotzat hartuko dugu**.

Adibidez:


- Ariketa batean hiru hilabeteen zenbat egun dauden galdetzen bada, gure erantzuna $3 \times 30 = 90$ egunekoa izan beharko da.
- Aitzitik, apirilak eta maiatzak zenbat egun duten guztira galdetzen bada, gure erantzuna $30 + 31 = 61$ egunekoa izan beharko da.

Urteko hilabeteen izenak honako hauek dira: **urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, ekaina, uztaila, abuztua, iraila, urria, azaroa eta abendua**.

EGUN bat Lurra bere buruari bira bat emateko behar duen denbora da (errotazio mugimendua) eta **24 orduren** baliokidea da.

Asteke egunen izenak honako hauek dira: **astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata eta igandea**.

Urte baten barruan egunak eta hilabeteak antolatzeko **EGUTEGIA** erabiltzen dugu.



Amaitzeko, 3 unitate geratzen zaizkigu: **ORDUAK**, **MINUTUAK** eta **SEGUNDOAK**. Unitate horien arteko baliokidetasuna hau da:

$$1 \text{ h} = 60 \text{ min} \quad 1 \text{ min} = 60 \text{ s}$$

Orduak, minutuak eta segundoak neurtzeko **ERLOJUAK** erabiltzen ditugu. Erloju horiek **ANALOGIKOAK** (orratzekin) eta **DIGITALAK** (zenbakiekin edo digituekin) izan daitezke.



Zergatik aldatzen da ordutegia herrialdeen arabera?

Arrazoia hauxe da: gure planeta etengabe biraka dabil, eta, ondorioz, leku batzuetan eguna argitzen ari den bitartean, beste leku batzuetan ilundu egingo du.



MAPAMUNDI edo PLANISFERIO batean 24 tira egiten baditugu, ORDU-EREMUAK izenekoak, tira horietako bakoitzari ordubate ezberdin bat egokituko zaio.

EKIALDEko herrialde baterantz bidaiatzen badugu, orduak BATU beharko ditugu, eta MENDEBALDErantz bidaiatzen badugu, orduak KENDU beharko ditugu.

Kanariak, Espainia izan arren, nahiko urrun daude penintsulatik mendebaldera eta horregatik askotan "ORDUBETE GUTXIAGO KANARIETAN" esamoldea entzuten dugu.

DENBORA-NEURRIAK bi modutan adieraz daitezke:

- Era sinplea, unitate bakarra erabiliz. Adibidez: **75 min**
- Era konplexua, hainbat unitate erabiliz. Adibidez: **1 h 15 min**

Modu batetik bestera pasatzeko, ezin da zifrak elkartuz edo bereiziz egin, denbora-unitateak 10naka ez doazelako.

ERA SINPLERA PASATZEKO Unitate bakoitza pasatzen dugu eta amaieran batzen dugu	ERA KONPLEXURA PASATZEKO Segidako zatiketak egiten ditugu
• 2 h 20 min 45 s (min) = $2 \text{ h} = 2 \times 60 = 120 \text{ min}$ $20 \text{ min} = 20 \text{ min}$ $45 \text{ s} = 45 : 60 = 0,75 \text{ min}$ 140,75 min	• 534 egun (era konplexua) = $\begin{array}{r} 534 \text{ egun} \quad \quad 30 \\ 234 \quad \quad \quad 17 \text{ hilabete} \quad \quad 12 \\ 024 \text{ egun} \quad \quad 05 \text{ hilabete} \quad \quad 1 \text{ urte} \\ \hline 1 \text{ urte} \quad 5 \text{ hilabete} \quad 24 \text{ egun} \end{array}$

Birpasatu denbora-unitateekin lotutako kontzeptuak. Oso ongi ulertuta dituzunean, sakatu "DENBORA-UNITATEEKIN LOTUTAKO KONTZEPTUAK ULERTZEN DITUT" dioen botoian, eta gero "¡TERMINADO!" dioen botoian, hurrengo fitxarekin hasteko.

**DENBORA-UNITATEEKIN LOTUTAKO
KONTZEPTUAK ULERTZEN DITUT**